

# PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Ikasgaia: Biologia eta Geologia

HBI: Osasuna eta ohitura osasungarriak ikertzen

Kurtsoa: DBHko 1. maila

## DESKRIBAPENA

HBI honen helburua da osasuna eta ohitura osasungarriak ikertzea. Osasuna guretzat zer den aztertuko dugu, bai eta kontzeptu horrek historian izan duen bilakaera ere. Ikuspuntu zientifikotik aztertuko ditugu ohitura osasungarriak, gaur egungo praktika jakin batzuetatik haratago (hala nola gorputza gurtzea edo pozik egoteko beharrari buruzko mezu-zaparrada), presio handia egiten baitute osasunaren arloan hartzen ditugun erabakietan. Sekuentzia didaktikoa ikaskuntza-egoerek osatzen dute, erronka gisa planteatzen baitira, eta gidatutako ikerketen bitartez ebatzen dira, amaierako produkzio bati lotuta. Horiek guztiek STEM kompetentzia eta gainerako hezkuntza-kompetentziak garatzen laguntzen dute, baita XXI. mendeko hezkuntzaren erronkak ere.

## METODOLOGIA

Erronketan oinarritutako ikaskuntza: ikerketa zientifikoko eta lankidetzak ikaskuntzako prozesua dakarte, HBIaren printzipioekin bat

## ERRONKA / AZKEN PRODUKTUA

HBIan zehar, zenbait ekoizpen sortzen dira erronka bakoitzarekin lotuta, eta azken bi produktuekin osatzen dira:

- Portfolio pertsonal osasungarria
- Infografia.

## ATAZAK

- Ohitura osasungarriei buruzko bideoak eta testak.
- Osasun-adierazleei buruzko ikerketak.
- Espirometro bat diseinatzea eta sortzea.
- Jarduera fisikoa egiten dugunean gure bizi-konstanteetan hauteman daitezkeen aldaketak aztertzea.
- Etxeko sukaldeko mikroorganismoei buruzko ikerketa.
- Higieneari, gaixotasun infekziosoei, txertoei eta antibiotikoei buruzko ikerketa.
- COVID-19aren ondorioz kutsatu, ospitaleratu, ZIUn ospitaleratu eta hil direnei buruzko datuak aztertzea eta grafikoak egitea, adinaren eta txertaketa-egoeraren arabera.
- Antibiotikoen erresistentzia ikertzea.
- Dieta aztertzea eta plater orekatu bat prestatzea; ondoren, argazki-erakusketa egitea.
- Jardueragatiko energia-gastua (JEG) kalkulatzeko.
- Jarrera-ohiturei eta motxilen pisuari buruzko ikerketa.
- Tabakoaren eta alkoholaren eraginari buruzko ikerketa.
- Alkoholometroa bat egitea.
- Irakurgai zientifikoak eta eztabaidak: "Osasun bakarra", gorputza gurtzearen ondorioak, alkohola eta tabakoa kontsumitzea...

## EBALUAZIOA

Askotariko proposamenak, aniztasunari erantzuteko:

- Ebaluatzeko eskalak, irakasleak edo ikasleak erabil eta egoki ditzaketen irizpideekin (koebaluaioa, autoebaluaioa)
- Hausnartzeko ikaskuntza-egunerokoak (metakognizioa)
- Ikaskuntza-portfolioaren proposamena

## TALDEAK

Talde mota desberdinetan egiten da lan, proposatutako atazen arabera:

- Lauko taldeak
- Biko taldeak
- Banakako lana
- Ikasgelako taldea

## SAIO KOP.

- 28, 5 saio ikasgelan eta etxeko lana